



**ZEIN HIZKUNTZA HITZ EGITEN DU
KOMUNIKAZIO GIZARTEAK?
>>>**

3

HIZKUNTZA-IDENTITATEAK IDENTITATE BERRIEN BAITAN Mahai-ingurua

Jon Sarasua
Josu Amezaga
Igor Calzada
Pablo Suberbiola (moderatzailea)¹

Helbide elektronikoa: pablo@soziolinguistika.org

Pablo Suberbiola.- Mahai-inguruan izango ditugun hiru hizlariak ezagutuko dituzue. Igor Calzada, Nevadako Unibertsitateko irakaslea, Josu Amezaga, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Jon Sarasua, Mondragon Unibertsitateko HUUHEZI fakultatekoa.

Saio honi hasiera emateko mahai-ingurua kokatu nahi genuke pixka bat. Izenburuak dionez *Hizkuntza-identitateak identitate berrien baitan* du gaitzat. Sugerentea iruditzen zaigu baina, agian, zehaztasuna eskertuko lukeela-eta, prestatu dugun kokapena irakurriko dizuet.

Kokapena, beraz, honakoa da. Pertsonen eta taldeen identitateek alde asko dituzte, eta horietako bat hizkuntza-identitatearena da. Hau da, pertsona hiztuna den neurrian zein hizkuntzarekin —hizkuntzekin— nolako harremana duen biltzen duena, eta, bereziki, zein hizkuntza-komunitateko, edo komunitateetako kide sentitzen den; kidesun hori nolakoa den, nola bizi duen hiztun horrek.

Gaur egun —eta itxura guztien arabera, etorkizun hurbilean gero eta gehiago—, harremanak egiteko, izateko eta bideratzeko modua aldatzen ari da, nahiz eremu hurbileko harremanetan, nahiz munduko beste lekutan bizi diren kideekin. Nondik datoz aldaketak? Bereziki hiru iturri azpimarratuko genituzke. Alde batetik, urte gutxitan pertsonen mugikortasuna handitu iza-

1. Zein hizkuntza hitz egiten du komunikazio gizarateak? EHUko Udako Ikastaroaren baitan buruturiko mahai-ingurua. Donostia, 2009ko ekainak 24.

na, leku batetik bestera mugitzea errazagoa izatea, eta horrek ekarri duen, garai batean baino kulturen arteko ukipena nabarmen handiagoa izatea.

Bigarrena, teknologia eta komunikabide berrien eszenatokiak dakarrena. Alde batetik, informazioa lortzeko eta zabaltzeko bideak asko ugari dira. Horretaz gain, norbanakoen arteko harremanak eta sare sozialak interneten garatu dira, eta norbanakoak lehen baino eragiteko gaitasun handiagoa eskuratzea. Eta hirugarrena, askotan aipatzen den 2.0 filosofia; hau da, norbanakoa jasotzaile izatetik partaide aktibo izatera pasa dela eszenatoki berri honetan.

Hori da kokapena. Testuinguru honetan, zertan eta nola ari da aldatzen —edo nahiago baduzue, zertan aldatuko da epe laburrera— beren burua euskalduntzat dutenen hizkuntza-identitatea? Aldaketa horietan ze aspektu interesatzen zaizue gehien?

NOLA ARI DIRA ALDATZEN EUSKALDUNEN HIZKUNTZA-IDENTITATEA?

Igor Calzada.- Lehenik eta behin defendatuko dudana ideia honakoa da:

Ez dezagula izaera digitala eta presentziala kontrajarri. Digitalizazioa, internet eta sare sozialak, hasiera hasieratik tresna tradizionalekin kontrajartzeko joera oso handia dago, eta ez dakit zergatik. Erabiltzaileak ez ditu bi munduak ezberdintzen. Orduan, ez ditzagun mehatxuak lehenbiziko mezuan zabaltzen. Iruditzen zait aukeren diskurtsoa zailagoa dela mehatxuena baino. Hala ere, ni arrakastarako probabilitate gehien duena bilatzen ibiltzen naiz, eta gauzak garatzeko probabilitate handiagoa dago aukerak ikusten badira, mehatxuak azpimarratzen badira baino.

Zertan antzemango dira aldaketak? Nik atzo konektore hitza aipatu nuen. Konektoreak ez du esan nahi bakarrik internetera hogeita lau ordu konektatuta pasatzea. Kanean ere konektoreak badaude alegia, sare-logika duen pertsonak behar dira, ekintzaileak behar dira, militantzia sustatzaile zentzuarekin dutenak.

Ireakia kontzeptuaren inguruan. Egia da euskaldunek lan gehigarri bat dugula, gerturatzearena. Gu gerturatu behar gara —euskaldun komunitatea— hizkuntza-komunitate horietara, gu gerturatu behar gara, ez da inor guregana gerturatuko. Zergatik? egoera diglosikoan gaudelako, baina, alde horretatik, beste hizkuntzak ere, mundu mailan gure egoeran dauden beste hizkuntzak egoera berdinean daude.

Ez-garbizaleak esan nuen. Ni behintzat azkartasunaren eta gauzak egitearen zalea naiz. Horrek batzuetan kalitatea jaistea dakar alor batzuetan, baina, sentitzen dut; ni peaje hori ordaintzeko prest nago. Adibidea da aldizkari ofizialeko itzulpengintza. Itzultzaileez gain, zeinek begiratzeko dituzten itzulpen horiek? Ez dut esaten kuotak jaitzi behar direnik, baina, agian eremuak aztertu beharko dira eta, akaso, diru hori beste gauzetan jarri behar eraginkorrago izateko.

Eta azkeneko puntua, nik uste garrantzizkoa. Gazteria ere euskalduntasunaren inguruan. Esfortzuaren kontzeptua utziz, uste dut **euskaraz ere gozatu egin behar dela**, ondo pasa behar dugula gure hizkuntzarekin. Eta ondo pasatzeak ez du esan nahi bakarrik mantentzea, galdu ez dadin zaintzea. Nik uste dut baikor izan behar dugula eta elkarbizitza beste hizkuntzekin ere, ondo pasatzearen ideia horrekin ere egin behar dugula, gurea bermatu behar dugulako mugak jartzearekin ez lotzea. Badakit oso diskurtso polita dela eta egin dezakedala askoz diskurtso katastrofikoagoa baino ez da hori nire asmoa.

HIZKUNTZA NORTASUN-EMAILE

Josu Amezaga.- Bueno, gero erantzungo dizut buletinaz zer pentsatzen dudana. Gaztelaraz antzera ulertzen ditut, ez pentsa. Oraingoan, egin didazuen galderari helduko diot eta saiatuko, oso modu laburrean erantzuten.

Lehen eta goizekoaren ildotik; hizkuntzak nire ustez, berez ez du nortasunik. Ni hiru hizkuntzatan moldatzen naiz, baina horietatik bakar batek ematen dit nortasuna. Areago. Niri nortasuna ematen dit, edo nik nortasuna horren inguruan eraikitzen dut. Nortasuna ematen didan hizkuntza ez da nire ama hizkuntza izan; nire hautaketa baten ondorio da. Momentu batean —gaztaroan— **erabakitzen dut euskara ikastea, eta hortik aurrera hori da nire hizkuntza-nortasun emailea.**

Bigarren ideia, iruditzen zait Euskal Herrian gaur egun, euskararen ezagutza mailaren hazkunderaren ondorioz, jende askorentzat euskara dakiten hizkuntza bat dela, baina nahiko instrumentala; **euskaldunekin hitz egiteko hizkuntza, baina ez nortasuna ematen dien hizkuntza.** Konparazioak ez dira oso egokiak izaten baina, niri gaztelarak edo ingelesak ematen didan parekoa ematen die euskarak —igual ez hainbeste— batzuei. Hau da, euskaldunak dira euskaradunak direlako, baina ez nortasunaren aldetik. Ez nago euskalduntasun pasaporteak ematen. Esan nahi dut hizkuntza-nortasun hori ez dutela bizi beste euskaldun askok bizi duten bezala.

Hiru: nire ustez, **euskarak hizkuntza-nortasunaren edo hizkuntza-komunitatearen behar handia du.** Hau da, beharbada beste hizkuntza batzuen kasuan ez da horren begi-bistakoa izango, edo ez da horren inportantea izango jendearen atxikimendu kontzientea baina, euskararen kasuan hizkuntza ahula delako ezinbestekoa dugu. Ez dauka hori baino indar handiagorik bizirauteko: ez dauka merkatu handirik, ez dauka estatu indartsurik, ez dauka bestelako dinamizarik, bizitasuna emango dionik.

Lau: euskarak nortasuna behar duen bezala iruditzen zait pertsonak, **pertsonak ere talde nortasunak behar ditugula eta komunitateak behar ditugula.** Komunitate bateko kide izan behar dugu. Zergatik? Batetik, eskubidea dugulako: irauin nahi badugu talde bezala iruditzen zait eskubide osoa daukagula talde bezala irauteko, izateko. Bi, iruditzen zait

gutxieneko elkartasun soziala talde-komunitatetik sortzen dela. Gure burua ikusten badugu banako huts bezala, inolako talde atxikipenik gabe, elkartasunak zailtasunak izango ditu garatzeko. Eta hiru; injustiziazko mundu batean bizi gara, non botere sendo batzuk dauden pertsonen gainetik; botereei aurre egiteko modu bakarra taldea da. Eta taldea komunitatea da, eta hori nortasuna da. Talde nortasunak ez du berez bazterketa-rik ekartzen, ez du berez, bestearen zapalkuntzarik ekartzen. Talde nortasun guztiak ez dira hedakorrak, ez dira zapaltzaileak. Izan daitezke, historian milaka ari dira, baina ez dute zertan. Hori ere azpimarratu nahi dut.

Azken aurreko ideia. Iruditzen zait **hizkuntza-nortasuna garrantzi handiko nortasuna izan daitekeela bizi dugun garaian**. Hau da lehen aipatu ditugu bestelako talde-nortasun batzuk, estatu nazioaren inguruan, kulturaren inguruan gertatzen direnak. Horien aurrean iruditzen zait hizkuntza-nortasuna malguagoa dela, aurrera ateratzeko aukera handiagoak dituena.

Eta azkenik: Seguru aski, hipotesi bezala daukat hori, **hizkuntza-nortasunak berarekin behar du bestelako nortasun bat**. Nortasun —ez dakit oso ondo nola deitu— nazionala, edo politikoa, edo ez dakit oso ondo nola zehaztu. Izan ere, nik uste dut hizkuntzak behar duela bere ondoan boterea; gaur egun munduan hala da; hizkuntza eta boterea oso lotuta daude eta neurri berean iruditzen zait hizkuntza-komunitateak behar duela, oso modu irekian esanda, komunitate politikoa bere inguruan.

TEKNOLOGIA BERRIEN GARRANTZIA ETA BERRIKUNTZA KONTZEPTUAK ERLATIBIZATUZ

Jon Sarasua.- Nik uste nuen, gaur, mahai-inguru honetako nire lana kontrapuntua jartzea izango zela. Baina, uste dut ados nagoela hemen esandako hainbat gauzarekin, eta Josu bera hasi dela nik ekarri nahi nituen kontrapuntu batzuk jartzen.

Hasteko irizpide bat: iruditzen zait **teknologia berrien** eta komunikazio-molde, bide eta autopista berrien **inguruko gogoeta historia luze-ago** eta testuinguru zabalago baten baitan kokatu beharko genukeela, **euskaltasunaren garapenaren diakronia zabalago baten baitan**. Batzuetan horretan huts egiten dugu. Iaz ere antzeko sentsazioa eduki nuen, hemen bertan, *Aniztasun berrien harira* izeneko jardunaldian. Iruditu zitzaidan aniztasun berrien inguruko emozio bat bazegoela, diskurtso berriak. Eta diskurtso horiek unitate bakarrera lerratzeko arriskua bazutela, unilateralitatera, edo kanpotik zetozkigun diskurtsora. Hori guztia, euskara bezalako hizkuntza baten dinamika larria ahaztuta, edo kontuan hartu gabe askoz faktore gehiagoren baitan ikusi behar genukeela gaia. Gaur egungo teknologia berriena ere, hala planteatu behar dugula uste dut.

Ados nago Igorrekin ezin dela dikotomiarik egin: teknologia berrien zaleak eta eszeptikoak, eta apokaliptikoak eta integratuak; elkartu egin

behar ditugu diskurtsoak eta elkarrengandik ikasi. Ni zentzu horretan ikasle sentitzen naiz ezer baino gehiago. Baina **susmoa dut gure artean berrikuntza teknologikoarekiko neurritz gaineko holako lilura bat ba ote dugun; ez berrikuntza teknologikoarekiko bakarrik, baizik eta, oro har berrikuntzarekiko**.

Ez da izaten bakarrik, abiadura handiko trenbidearen moduko gaiekin, baizik eta zerbait gehiago. Frantziara joaten bazara, Frantziako barneko herrietara, ikusten duzu han zaharra eta berritasuna beste era batera gestionatzen ikasi dutela. Ikusten dituzu tabernak orain dela berrogei urteko, berrogeita hamar urteko lurrarekin, pinturarekin, ateeekin, leihoeekin. Ikusten duzu hor gizaldi batzuk eman dituztela tradizioa eta modernitatea kudeatzen. Eta guk irudi du modernitatea deskubritu genuela, behintzat modernitate berantiarra, trantsiziotik hona, eta badagoela berrikuntzarekiko horrelako emozionalitate neurritz kanpoko, baita erai-kin arkitektoniko komunak edota edozein detailerengan ikusten dena.

Eta diskurtso politikoan, eta teknologiaren inguruko diskurtsoan ere agertzen da. Niri eszeptizismo puntu bat sortzen dit, nahiz eta pentsatzen dudana hortik ere ikasi behar dugun. Momentu honetan **hizkuntza-politika eta gure hizkuntzaren garapena, dagoen moduan daukagu, egin behar dugun irakurketa egin behar dugu, eta irakurketa hori gogorra da, eta politikoki asumitzeko nahiko zaila**.

Eta orduan larritzen gara. Orain modan jarri dezagun erabilera, eta gero teknologia berriak: euskara teknologia berriekin salbatuko da eta, bueno, ondo. Nik uste dut hori dena behar dugula eta hortaz gehiago daki-tenengandik ikasi behar dugula. Baina gaia kokatu behar dugu diskurtso soziolinguistikozko zorrotz baten baitan. Eta nik azkeneko urteetan gai hauetan sarrera txikiak eginez zabaltzen ari naizen arrangura hori da: **iruditzen zait azken hamarkadetan diskurtso soziolinguistikozko erriguroso bat gabe ari garela gure hizkuntza-politika, bai publikoa eta bai soziala, egiten. Eta ez garela benetako galdera inportanteenak mahai gainean jartzen ari**.

Eta nire ideia izango litzateke: ez dezagun teknologia berrien gaia ihesbide moduan erabili, baizik eta integra dezagun pentsamendu zabalago baitan.

Nik nolabait bizi dut. Ikasle belaunaldiak ditugu eskura; seme-alabak ere hasi dira mundu hauetan sartzen eta ikusten dugu belaunaldi berriei badatorkiela askoz aukera zatikatuagoa, fragmentatuagoa, eta, desafio berrien aurrean daudela; **euskaltasuna belaunaldi berri hauen baitan dagoela**.

Horren aurrean hiru gauza aipatu nahi nituzke. Lehenbizikoa: dinamika asko oso berriak dira oraindik. Sare sozialak eta beste hainbat gauza oraintxe ari dira pixka bat lehertzen, eta ez dakigu oso ondo horien irispina nolakoa izango den.

Bigarrena: Ez dakigu berrikuntza teknologiko hauen azken portua —edo hurrengo puntua— zein izango den, epe ertainera noraino joango

den, eta zein izango diren benetan gure seme-alaben funtzio kulturalaren parametroak. Orduan hor pixka bat labaintzen hari garela-eta intuitzen dut.

Eta hirugarrena. Kontutan izan behar genituzke, beharbada, **fluxu eta errefluxuen irizpideak**. Epe laburrera bonba bat izango dela ematen duenak, handik hamarkada batera ikusten dugu erreflexu bat izan duela, edo jendea nekatzen dela jada. Hamarkada bat lehenago, denok hor sartuko ginela uste genuen gauzez jendea uste baino lehen nekatzen dela. Historia ez doa modernitatean uste izan genuen moduan, linea batean, ezta ere seguru asko, nire aitak esan zuen moduan, bueltaka bakarrik. Gutxienez espiralean doa, nondik begiratzen dugun bueltaka.

Goaz mundu batera non XXI. mendean nazioarteko bihurtzeak eta nazioarteko jenderekiko harremanek plus handiagoa izango duten? Beharbada badaude arrazoi batzuk pentsatzeko XXII. mendean XXI. baino gutxiago bidaiatuko dugula munduan, ez gehiago.

Kontrapuntua jartzeagatik: **birtualaren leherketa batera goazela badakigu, baina ez dakigu hemendik hamarkada batzuetara birtualaren kontra integrazio fisikoaren errefluxo bat egongo den**, eta, beharbada, gu bezalako kultura txikiak hor edukiko dugu beste indar gune bat.

Beharbada argumentu gehiegi bota ditut erlatibizatzeke gaur egun egiten den diskurtsoa, baino ez dut benetan sakonean erlatibizatu nahi. Uste dut egia dela, Igor [Calzada] bat edo Sustatuko laguna, eta Luistxok [Fernandez]-eta jarri nahi dizkiguten oharrak oso ohar interesgarriak direla; horietan trebatzen eta murgiltzen ez bagara galdu ditzakegula zenbait aukera.

Lehen interbentzio txo hau amaitzeko esango nuke sare kontzeptuarekin ados nagoela. Uste dut sare izaten ere asmatu behar dugula. Beharbada, Josuren [Amezaga] gaira itzuliz, botere-, hegemonia-guneak aipatuko nituzke nik, gero denbora baldin badago. Baina edozein modutan ere, sare kontzeptu horretan ere, erronka nagusia interakzio fisikoa duten sareak dira. Eta **interakzio fisikoa duen sare sozialik gabe sare birtualak berehala iraungiko zaizkigu**.

Nik hor jartzen dut bertsolaritzaren adibidea. Bertsolaritzan sortu da azken hogeitun urteetan ahalmen-inguru bat, hegemonia bat, esparru bat. Hor adibidez, bertso-eskolek funtzionatzen dute, eta interakzio pertsonal handia dago beraien artean; horien baitan bizitza kulturala, bizitza pertsonala, nortasunaren ekoizpena dago. Orain, beste geruza moduan bertsolaritza ere hasi da salto ematen sare birtualera. Eta sare birtualean sarrera asko daude, eta *bertsoa.com*-ek funtzionatzen du. Baina funtzionatzen du —eta funtzionatuko du XXI. mendean— interakzio fisikoko sare hori bertsolaritza mugimenduak sano mantentzea lortzen baldin badu. Hau da bertsolaritza-munduen desafio nagusia, bertso-eskolak elikatzea eta bertso-eskolako interakzio fisikoan gazteei kultura humanizatzaile eta igurtzi handiko bat eskaintzea da, eta sorkuntza-esparru bat.

ERRONKA BERRIKUNTZA BERA DA, GIZARTE BERRIKUNTZARENA, BERRIKUNTZA SOZIALA.

Igor Calzada.- Berrikuntzaren alorrean Joni erantzunez, ñabardura txiki bat egingo nuke. Niretzat erronka ez da berrikuntza teknologikoa; **erronka berrikuntza bera da, gizarte berrikuntzarena, berrikuntza soziala**.

Gainera, herri honetan berrikuntzaren izenean egin izan diren hainbat gauza ez dira berritzaileak izan. Are gehiago, oso kritikoa naiz berrikuntza deitzen zaion zenbait gauzarekiko. Adibide bat ematearren, urbanismoaren arloko esaldi hau ekarriko dut: *Eraikuntza zaharrek behar dituzte ideia berriak*. Ni horrekin gelditzen naiz. Bertsolaritzan —aipatu izan dugu— saiatzen ari gara oso modu sortzailean beste praktika batzuekin ibiltzen, jaxa dela eta beste. Hori niretzat euskara berritzailean salto handi bat da, beti ere jatorria galdu gabe. Nik berrikuntza ez dut modernismo huts baten baitan sartzen. Uste dut gizarte berrikuntza aipatzen denean gizarte aldaketa ere bere baitan dagoela, ez da “goazen gauzak beste moduan egitera *modernito* batzuk izatera eta listo”.

Bestalde, errealitatea aipatzen duzunean esaten duzue sare sozialak nora doazenaren inguruko duda asko dituzula. Ni ikertzailea izan naizenean ere, tokatu zait errealitatea ikustea, baina errealitateetik lehiatzeko. Hau da, errealitatea aztertu daiteke, ikertu daiteke baina ni hareago noa, errealitatean sartu egin behar dugu, eta non? Olatuaren inguruko betiko metafora da Javier Retegik garatutakoa: globalizazioaren olatuaren alde jarri, onartu, neolibelarismoa eta tendentzia orokor guztiak onartu. Izan ere, lana kontrajarriz, gauden lekuan gelditzen gara. Beste herriak garatuko dira, igual sekulako porrota izango dute, Los Angelesen edo Seattleen gertatu zen bezala. Baina Portlandek beste bide batetik bere bide propioa garatu zuen. Portlandek planteatu zuen teknologia, eta parte-hartze zibikoa garatzea. Eta mundu mailan gaur egun sekulako hiritarren parte-hartzea hiria da. Alegia, **sortu dezagun diskurtso berritzailea, berrikuntza kritikatu orde, nola egin ez dakigulako**. Baina errealitatearengandik joan behar dugu paraleloan. Beste errealitateari begira geratuta trenak pasatzen zaizkigu, denbora galtzen da.

Aniztasunaren gaian, aniztasun kulturala elkartzen denean, benetako aniztasuna ez da kulturala bakarrik. Ezberdin pentsatzen duen pertsona ere anitza izan daiteke. Eta askotan ez dugu hitz egiten aniztasun horren inguruan. Etorkin bat anitza da dibertsitate diskurtso honetan, baina ezberdin pentsatzen duena ere anitza da, nire alorrean behintzat. Nik uste dut hori ere barneratu behar dugula. Euskararen munduan are gehiago.

JARRAIDURA-SENA ETA IREKIDURA BIKOTEA

Jon Sarasua.- Nik egia esanda ez naiz sentitzen urruti zuk esaten dituzun berrikuntzaren inguruko ideiekin. Nik uste dut berrikuntza behar dugula. Agian, sorkuntza hitza gehiago gustatzen zait berrikuntza baino.

Beharbada, berrikuntzaren ideiarenean antzietate gehiegi daukagu-
la euskaldunok, eta ideia hori jainkotzeko antzietate gehitxo ote dauka-
gunaren kezka azaldu dut. Eta ikusi dudala, batzuetan, ilusio gehitxo jar-
tzen dela zenbait berrikuntza teknologikoen inguruan.

Ni azken aldiran lantzen ari naiz jarraidura eta irekidura bikotea. Bi
kontzeptuak. Nik uste dut gure **hizkuntza-komunitatearen enigma honen**
inguruan, hain aspalditik etorri izanaren eta existentzian egoteko modu
horren azpian binomio hori badagoela: jarraidura-sena eta irekidura-
sena. Jarraidura fluxu baten parte sentitzea da. Fluxuari eusteko intuizio
sen hori badugu neurri batean, eta horrek ilusionatzen gaitu oraindik ere.
Baina beste neurri batean galdu dugu. Adibidez, nire tesietako bat da tran-
sizio-garaian, modernitatearen eta progresismoaren ideiak hartu zirela,
orain asko eta asko zalantzan jarriko nituzkeenak. Hau da, euskal progre-
sistak zenbait jarraidura sen interesgarri moztu zituen, dimentsio espiri-
tual, besteak beste, ideia berrien izenean. Orain ideia berri horietako asko
ura hartzen ari dira, zuloz beteta daude. Zorionez, hizkuntzaren jarraidu-
raren senari eutsi diogu, baina bidean beste hainbat gauza galduta.

Batetik dago jarraidura sena eta bestetik irekidura. **Irekidura da**
garaian garaiko matrize teknologiko berriei, garaian garaiko eragile
guztietan, garaian garaiko aniztasunaren konkisten eta eragin mota guz-
tietan erantzutea. Eta **bi horien nahasketa izan da nolabait gure traiekto-**
ri historikoa; agian, binomio horrekin gauza asko esplikatu daitezke.

LIBERTÉ, ÉGALITÉ, FRATERNITÉ, ...IDENTITÉ? KULTURA- ANIZTASUNAZ NORTASUN-GRAMATIKA PROPIOAREN BEHARRA

Pablo Suberbiola.- Jarri nahi nuke honako puntu hau. HUHEZIK eskain-
tzen duen kulturaren transmisioaren inguruko ikastaroko dokumentu
batean, Jon Sarasuari entzun nion esaten gure kultura hau asko markatu
dutela garai bateko *liberté, égalité, fraternité* kontzeptuek, baina hitz horiei
ez ote zaien falta *identité* hitza ondoan. Alde horretatik, nortasunaren gra-
matika bat beharko genukeela entzun izan diogu. Eskatuko nizuke nor-
tasunaren gramatika esaten duzunean zer esan nahi duzun azaltzea.

Jon Sarasua.- Hori aipatu nuen aurreko ikastaroan, ikusten nuelako aniz-
tasunaren inguruan herri anglosaxoietatik edo Espainiatik diskurtso bat
inportatzen ari ginela, multikulturalismoa eta plurilinguismoaren ingu-
ruan, horien ontasunen inguruan. Konturatzen nintzen diskurtso progre-
sisten adar batzuk zirela, oso ondo gelditzen zirenak, oso politak eta oso
humanistak, baina ez zutela irtenbiderik planteatzen gurea moduko hiz-
kuntza txiki baten bizi-kinkari.

Hortik sortu zen gogoeta zabalago bat. Izan ere, azken finean, denok
gara modernitateak sortu ziren ideologia modernoekin zordun, eta moder-

nitateak sortu zituen berdintasunaren eta askatasunaren kontzeptuak.
Azkenean, erro kristau eta humanismo grekotik hartutako bi balore
nagusiak: askatasuna (espirituala, baita jainkoaren aurrean ere) eta ber-
dintasuna (denok berdinak gara arrazoi baita erlijiosoengatik ere). Eta,
askatasuna eta berdintasuna kudeatzen saiatu da modernitatea. Ondor-
ren, nolabait, aurridentasunari (anaitasuna ez esateagatik) lekua emanez,
hain zailak lotzeko ziren biak lotu ziren. Hau da, askatasuna, berdintasu-
na eta horiek lotzeko gure arteko anai-arrebatasun edo aurridentasuna.

Eta hor bakoitzak sortu du liberalismoa, sozialismoa eta abar. Horri
buelbaka ibili gara XIX eta XX. mendeetan. Baina modernitateak ez du
nortasuna edo identitate horren inguruko gramatikarik edo ideologiarik
ekoiztu, bazegoelako, gainera, nolabaiteko begirada uniformizatzaile bat:
Iraultza Frantsesak Euskal Herrian zer egin duen ikusi besterik ez dago.

Beraz, horretan ideologikoki pixka bat umezurtz gaudela iruditzen
zait. **Gure ideologiak modernitateak ekoiztutako baloreetan oinarrit-**
zen dira, eta hor *identité*-rik ez dago; begirada progresistatik hizkun-
tzen dinamikak gestionatzen hastea orain arte gestionatu ditugun
moduan, oso borondate onekoa da, baina ez da ulertzen. Zentzu horretan
esaten nuen ba, hizkuntza-gramatika ez geneukala.

Hemen badago jendea horretan ibili dena: “Txepetx” saiatu zen hiz-
kuntzen gramatika bat sortzen. Edo beste autore batzuk —eta soziolin-
guistika bera ere— saiatzen dira ideologia modernoekin kokatzen batetik
haratago, hizkuntzen gramatika bat sortzen, eta esplikatzeko hizkuntzak
eta nortasunak zer diren sakonean, nondik datozen, zergatik hiltzen
diren, zergatik biziberritzen diren, zer baldintzetan, eta abar.

Hizkuntza-aniztasunaren inguruan aipatu ditudan kezkek, Londre-
serako egokiak izan daitezkeen diskurtso batzuk irakurri eta entzun ditu-
dalako da, baina ez dutenak barneratuta, gurearen moduko hizkuntza
baten egoeraren kezkarik. Orduan Londresen edo Sao Pablon balio deza-
keen diskurtsoak ez du honako balio. Eremitan, hizkuntza hege-
monikoa dagoela ez dago zalantzan, eta hortik gestiona daiteke multikul-
turalismoa, honela edo hala. Inguru horietan ez dago nortasunaren gra-
matikarik. Zergatik? ba ez dutelako behar.

Gure kasua guztiz ezberdina da. Eta guk behar dugu. Zentzu horre-
tan eraiki behar dugu gramatika hori —ez dakit propioa edo konpartitua
den—, XXI. mendean hizkuntzaren eta euskaltasunaren garapena pentsa-
tzeko, eta pentsamendu-elementu horiez orain artean baino sakonago eta
konpartituagoan pentsatzeko. Egia da blokeo politikoak ez diola batere
laguntzen eta ez dauka itxura onik gai honek, baina beharbada, egin
behar duguna beste belaunaldi bat prestatzea da, hizkuntzaren garabide-
ari buruzko minimo batzuen kontzientziarekin. Eta edozein kasutan,
kontuan izan behar da hurrengo belaunaldi hori izango dela, ez bakarrik
Euskal Herrian gutxiengo, baizik eta indar politikoetan gutxiengo, eta
indar politiko abertzaleetan ere gutxiengo.

DIAGNOSTIKO SOZIOLINGUISTIKO ERRIGUROSOAREN BEHARRA

Nik uste dut begiratu soziolinguistikoko errigurosoa ez dela mamitu Euskal Herrian. Ez dela mamitu hizkuntza-politikan, ez dela mamitu beste guneetan ere. Teknologiaren gaiari lotuz, gure gaixotasunaren diagnostiko sakonik egin gabe gaudela pentsatzen dut, daukaguna esklerosia, minbizia, Alzheimerra edo katarroa den jakin gabe. Eta diagnostikoaren araberakoa izan beharko du hizkuntza biziberritzeko tratamendua. Ez du balio esatea “orain teknologia berriekin eskanerra eta erresonantzia magnetikoa deskubritu dira”. Horiek guztiak beharrezkoak dira Alzheimerra eta minbizia tratatzeko. Baina, minbizia bada tratamendua beste bat izan liteke, teknologia horien balioa ezkutatu gabe. Zentzu horretan, **iruditzen zait gure hizkuntzaren gaitzaren eta egoeraren diagnostiko oso bat ez daukagula, eta diagnostiko horretan oinarritutako politika bat ere ez.**

Eta bukatuko dut esanez zaila daukagula uste dudala, **intuitzen ari garelako benetako diagnostikoa eta benetako sendabidea, momentu honetan, beharbada politikoki zuzena ez dela, eta politikoki onargarria den kontsentsu bat lortzetik urrun xamar gaudelako.**

Josu Amezaga.- Jonek aipatu dituen gauza batzuei jarraipena emanez. Ez nekien Jonek gogoeta hori eginda zeukanik euskal kulturgintza-ren transmisioaren masterrean. Baina nik neuk ere master horretan ondorio berbera planteatu nuen. Hau da, **hizkuntza-aniztasunaren inguruan kanpoko diskurtsoa inportatzen ari gara, eta gurean ez da ondo egokitzen.** Nik ere halaxe ikusten dut, eta halaxe planteatu nuen orain dela hilabete batzuk izan nuen hitzalditxoan.

Multikulturalismoaz ari garenean **kanpoko terminoekin hitz egiten ari garela ikusten dut, eta horrek errotik aldatu du gure praktika, gure hizkera bera.** Adibide bat jarriko dut. Etorrin hitza beraren erabilera Euskal Herrian duela 15-20 urte eta gaur egungoaren arteko aldaketa ikaragarria da. Orain etorkinak errumaniarrak, ekuadortarrak, kolonbiarrak eta abar dira. Eta duela 15 urte ez ziren ez errumaniarrak ez ekuadortarrak; duela 15 urte Extremaduratik, Andaluziatik eta etorritakoak ziren.

Areago, begiratzen baduzu bibliografia —ez dago gehiegi baino zertxobait bai—, duela 15-20 urte Euskal Herrian argitaratzen ziren lanetan etorkinei buruz hitz egiten zen Estatu Espainoleko toki ezberdinetatik etorritakoei buruz, eta inor ez zen mintzen.

Gaur egun, duela urte gutxi Hezkuntza Sailak atera zuen zirkular bat eskoletara esanez, etorkinen seme-alabak, ahal delarik, bideratzeko D eredutara, eta hor barruan sartzen dira Extremaduratik, Andaluziatik eta abarretik etorritako pertsonak. Eta arduradunaren dimisioa eskatu zuten. Eta gaur egun jende askori esaten diozu “zu etorkina zara” eta haserretu egiten zaizu; bera etorri zela Valladolidetik. Hau da, **kontzeptua bera aldatu egin da, eta horrekin batera, etorkinei buruzko gure planteamendu guztia.**

Zer gertatu da hor? Nire ustez kanpoko inportazioa. Eta horrekin ez dugu kontua ondo enfokutzen. Ez dut esaten etorkinak arazoak direnik, baizik eta **gurea bezalako egoera batean populazio mugimenduek duten eragina eta beste toki batzuetan duten eragina oso desberdinak direla.**

Iruditzen zait diskurtso propio baten beharra daukagula. Baita diskurtso hori egiteko konplexu asko daukagula. Adibide bat: eztabaidatzen ari gara ia Osakidetzak ateratzen dituen oposizioetan euskara baloratu behar den. Eta ikaragarritzko polemika dago. Eta kontua da Europako Bata-suna osatzen duten 27 estatuetatik hirutan ez dutela hizkuntza eskatzen nazionalitatea lortzeko: Suediak, Portugalek eta Estatu Espainolak —ez du esplizitoki eskatzen baina Espainiako Konstituzioak ezartzen du espainola jakin beharra—. Zalantza sortu zait Irlandarekin, baina gainerakoek (23 edo 24) nazionalitatea eskuratu ahal izateko bertako hizkuntza ofiziala jakitea eskatzen dute modu batean edo bestean. Eta horrekin egin nahi diote aurre hizkuntza-aniztasunaren auziari, hau da, politika multikultural baten barruan. Eta **planteamendua da: kultura-aniztasuna bai, baina gutxieneko oinarri bat behar da nazio politikoa osatzeko, eta hori hizkuntza da.**

Gaur egun Europako estatu progresistenen ere, adibidez, Britainia Handiak —hizkuntza-aniztasunean eredutako bat Europan— hizkuntza eskatzen dute, azterketa gainditu behar da. Eta, hemen, Osakidetzako oposaketei buruz eztabaidatzen ari gara. Orduan, nola egingo diogu aurre multikulturalismoaren auziari holako zamarekin.

Nik sumatzen dut gure ereduetatik gehiago pentsatu beharko genukeela. **Euskal Herrian hizkuntza-aniztasunaren auzian, duela 30-40 urte jadanik, euskararen egoera eta euskal kulturaren egoera oso kinka larrian zegoen, eta populazio mugimendu batek egoera berriak planteatu zituen. Eta asmatu zen modu bat.** Ez dut uste arazoa konpondu zue-nik baina asmatu zen, gutxienez, kanpotik etorritako jendea komunitate sozial politikoan integratzeko modua. Eta nik uste dut **arazo bat izan zitekeena —etorkinen integrazioarena— nahiko itxuroso gainditu zela.** Ez guztiz, kulturalki oraindik horren ondorioak ari gara ikusten baina zerbait asmatu zen.

Gaur egun planteatzen zaigun arazo berriari balio ez diguten ereduak erabiltzen edo haiei begira ari gara. Beraz, geure egoera konkretuari gehiago begiratu behar diogu nahi badugu arazoa ondo enfokatu.

HIZKUNTZA-NORTASUN DINAMIKOAK, NORTASUN PARTEKATUAK, EREDU HIBRIDOAK

Igor Calzada.- Jonek aipatu du iruditzen zaiola politikoki kontsensurik ez dagoela. Zerbait gehituko nuke. **Agian euskaltzaleak merezi ez dugun zama bat badagoela, eta zama handi horrek asko zailtzen duela bestelako diskurtsoak garatzea: hizkuntza-aniztasunari buruzkoak, hizkuntza-politikakoak, eta abar.**

Entzuten dudanean multikulturaren diskurtsoak kanpotik ekarri ditugula, batzuetan pentsatzen dut ez ote diogun beti geure buruari, eta geure ereduari begiratzeko. Gure errealitatea ez da beste herrialdeetatik oso desberdina.

Eta, **kanpotik begira baino, nik barrutik kanpora begira jartzea nahiago dut.** Eta ez inportatzeko baizik eta egokitzeko agian, beste batzuk egiten ari direna. Zeren etorkinen kultura-aniztasunaren gaia eza-gutzeaz gain, jakin behar da beste herri batzuek ere badituztela arazoak eta bilatzen dituztela moduak.

Oso erreza da esatea kultura-aniztasunaren inguruko formularik ez daukagula. Niri hizkuntza-politikarako diagnostiko hori, diagnostiko faktore horiek entzutea gustatuko litzaidake. Baina ez dago denbora asko galtzeko. Errealitatea hor dago. Erreza da ez dugula egin esatea. Egin dezagun! Batzuetan sumatzen dut holako beldur bat gauzak egiteko: agian erratuko gara, baina egin dezagun!

Gogora dezagun. Ikastolen mugimenduei esker gaude gauden lekuan: denok gatoz ikastolen mundutik. Haiek gizarte sareak ziren: gurasoak dirua jarri zuten, etorkinen seme-alabek jarri zuten bezala. Eta etorkin batzuen seme-alabak ikastolara joan ginen. Orain beste tesitura batean gaude eta egokitu beharra dago. Ahaztu nondik gatozen? inondik inora, baina formulak asmatu behar ditugu.

Josuk aipatutakoari helduz, hizkuntza-nortasuna gaiarekin jarraituz iruditzen zait, **hizkuntza ezberdinen inguruan dagoeneko baterakuntza batean bagaudela, eta modelo hibridoak badaudela.**

Hizkuntza-nortasun dinamiko horietara joango gara derrigorrean. Eta ez dit balio hizkuntza-egoera bat mantentzea, hizkuntza hori edozein alorretan bizia eta aktiboa ez bada. **Irizpidea hori da: hizkuntza bat bizia eta aktiboa izan behar du, sarean eta presentzialki; edozein alorretan dinamikoa eta bizia, ez eginbeharrak agindutakoa.**

Kezka egin behar horretan jartzen dut. Egin nahira pasatzea komeni da, ondo pasatzera.

Jonek aipatzen zuen belaunaldi berrien beharraren ildotik, iruditzen zait errealitatea ikusi egin behar dugula. Iruditzen zait aurrera begiratu behar dugula eta belaunaldi berri horietakoek ez dutela inongo ardurarik, guk eskuartean orain daukagun egoera honekin, egoera politiko honekin. Hau ez da merezi duguna, noski, eta horrek lan asko eta energia asko galarazten digu.

Horregatik Josuk aipatzen duen hizkuntza-nortasunak nik ekiditen ditut, batik bat horretara hitz egitera eraman behar bagaitu, seguru asko beste gauzetarako galtzen ateratzen garelako. Oso abilak gara galdera potoloei erantzuna eman nahi izaten, ez diegunean eguneroko txikiei erantzuten. Nik nahiago dut bigarrean kokatu. Eta aipatu den bezala, komunitatearen parte-izate partekatuen inguruan, **dudarik ez daukat hori izango dela gure eboluzioa, hizkuntza-komunitate partekatua,**

hibridoa, aukera bat dela, errealismo puntu batekin planteatzeko baka-rrenetarikoa. Gizartearen eboluzioaren kontra, eta gizarte faktoreen kontra ezin daiteke joan eta Txepetxek aipatu zuen motibazioa, gaur egungo motibazioa beste parametrotan dago.

Josu Amezaga.- Komentario bat komunitate, eta nortasun partekatuen inguruan. Etorkizuna hori omen da. Bueno, kasu batzuetan iragana ere bada. Gure kasuan iragana da, guk talde partekatua osatzen dugu; gure nortasuna eta komunitatea partekatua da, derrigorrez. Gu elebidunak gara derrigorrez, gure etorkizunean eragina izango duen hori historiatik datorkigu. Zama baten orde onurak ateratzen dizkiogu zorionez, elebidunak gara zorionez, baliatu dezagun hori.

Baina guretzat ez da fenomeno berria, fenomeno zaharra da. Orduan, kultura-aniztasunaren inguruan irakurtzen dudanean, eta ikusten dudanean nortasun partekatuen kontzeptuak, Britainia Handiko turkiarren kasuan adibidez, turkiar sentitzen dira eta baita ere britainiar. Hori oso polita iruditzen zait, ederto. Baina Turkia eta Britainia Handia ez daude gatazkan, eta gurean nortasun horiek, orain partekatua izan behar omen ditugun nortasun horiek gatazkan daude. Orduan, fenomeno oso desberdina da. **Zelan eramaten dugu partekatze hori aurrera, gatazka egoera baten erdian?**

SAREAN EGOTEAREN GARRANTZIAZ – IKURREN GARRANTZIAZ

Pablo Suberbiola.- Proposatuko dizuet fokua berriz sarera eramatea. Puntua jartzeko erabiliko ditut Vicent Partalen hitz batzuk. Partal interneten garapenean katalan hizkuntzaren hainbat berrikuntza garrantzitsu eman dituen aditu kazetaria da. Otsailean Soziolinguistika Klusterrak Donostian antolatutako jardunaldian, katalanak interneten duen presentzia azaltzerakoan esan zuen katalana txiripaz sartu zela Googlek hautatutako 40 hizkuntzetako zerrendan. Eta esaten zuen hor egotea edo ez egotea inportantea dela. Ez bakarrik sareari begira. Izan ere, gutako bakoitzak euskararekin —kasu horretan katalanarekin— duen harreman horretan, euskaldun izate hori bizitzeko moduan funtsezko puntu bat dela. Hau da, hiztunek pentsatzen dute “nik berrikuntza asko gertatzen ari den talde horretan nire hizkuntza ikusten dut —edo ez—, eta besteek ni identifikatzen naute katalan bezala, euskaldun bezala”. Hor egotea edo ez egotea ez da inportantea interneti begira bakarrik, baizik funtsezkoa da, hiztun bakoitzak, identitatea bizitzeko moduan.

Nik hau lotuko nuke, Josuk aipatu izan duen Ericsonen eredu horrekin: *nitasunak* —kasu honetan *gutasunak*— irautea espazioan eta denboran, eta besteek onartzea. Horrek gazte baten hizkuntza-bizipena asko baldintzatuko du.

Igor Calzada.- Sarearen gai horretan, niretzat pauso bat beherago joan behar da. Sareak joan behar dute euskalgintzara, Baionara, Sarara, Tuterara, La Bastidara, Sestaoko hiztunak konektatzera. Gero juntatuko dira edo ez, eskaintzaren arabera. Ez gaitezen gelditu ideia abstraktu horrekin; gauzak egiteko dira. Orduan, noski, nortasuna, **hizkuntza-nortasuna norberak aukeratuko du, baino nik uste dut helburua pertsonak konektatzea dela.**

Sare kontzeptua ez dago komunitatearen kontzeptuarekin kontrajarrria. Zygmunt Baumanek dio komunitatearen ideia gainbehera datorrela baina nik esperantza daukat. Deshumanizazio horretan, espero dut gizarte sareak rekonfiguratzea. Alegia, **jendea berriro bildu egingo da berarentzat garrantzia daukan gauzetan, eta horien artean hizkuntza dago,** noski, agian aukera bezala ulertu behar da. Horregatik, esaten dut zirrikitu bat irekitzen zaigula; ez dakit handia ala txikia den baina bestela pareta daukagu, eta nik pareta eta zirrikituaren artean zirrikituarekin gelditzen naiz.

Josu Amezaga.- Egin duzun galderari erantzunez, **Internetetik kanpo ere ikurrek duten garrantzia azpimarratu behar dut.** Anekdotak batekin esplikatuko dut. Lagun bat daukat oso abertzalea dena, eta txakolina egiten duena. Lortu zuen jatorrizko izendapena izatea eta etiketak egitera joaterakoan tak! legearekin egin zuen topo. Eta Europa mailako legeak ezartzen du egin da dagoen estatuaren izena ipini behar dela: Made in Spain, ipini behar dela, Europako hizkuntza batean idatzita. Nire laguna oso abertzalea denez esaten zuen “ni ez noa ipintzera España, ez baitut Espainian egin, egin dut Leioan”. Eta bueltara ibili ondoren otu zitzaion España grekoz idaztea. Eta horrekin salbatu zuen legeak ematen zion amorrua eta horrekin konpondu zen arazoa. Grekoz idatzi zuen, eta inork ulertzen ez duenez ...

Zer esan nahi dut honekin? www.txakolina.eus balitz, hau da, iragarri guztietan panfleto guztietan, propaganda, membretetan eta abar agertuko litzateke. Gero eta gehiago ikusten da edozein fabrika komertzialen marka-domeinua, interneteko domeinua. **Hor ehu.es edo ehu.eus agertzea oso desberdina da: joan zara saretik mundu errealerara. Horrek bakarrik izugarri egiten du. Jadanik ez zara ez dakit nongo enpresa bat, Euskal Herrian lokalizatutako enpresa bat zara.**

KANTITATEA VS KALITATEA – ARDURA-KOMUNITATEA

Jon Sarasua.- Nik ez daukat zalantza handirik gai honen garrantziaz, nahiz eta aitortzen dudana ez naizela honetan oso aritua. Ñabardura txiki bat egin nahi nuke. Identifikatua sentitzen naiz Igorren aldarreaz, eta ez hainbeste nireaz. Aldarreaz esaten dut, ez mezuaz, Uste dut, berez, neurre jarrera ere hori dela: goazen eraikitzea. Azken hamar urteetan egin dudana hautua eraikuntzara dedikatzea da, eta ez hainbeste diskurtsoa edo agerpen publikotara. Beraz, neu ere hor nago: ea zer egin behar

dugun eraikitzeke, eta ez zait diskurtso kritikoa hainbeste interesatzen. Eta hemen ari nahiz diskurtso kritikoa eginez, eta beste norbait esanez “ez, eraiki egin behar dugu”. Jakina, hala da.

Interneti buruz. Badago hainbesteko aukera munduan, neurri batean fikzioa ere badena. Uste dut lekua egin behar dugula hor. Baina momentu honetan **mundutik datorkigun eskaintza-uholdearen aurrean kontrajarri dezakeguna ez da bakarrik geurearen kantitatea, baizik eta eduki kualitatiboagoak.**

Alde batetik, **nik neuk sentitzen dut euskal kulturaren jarraibide guztiaren parte naizela,** ez bakarrik bertsolaria izan naizelako edota euskaraz euskalki desberdinak lantzea tokatu zaidalako familian. Batzuetan neurri buruarekin harritu egiten naiz: pilotan hasiz gero, pilotan egin diagu, dantzan hasi eta dantzan dakigu, ez dakit zer jotzen... eta abar. Euskal kulturaren jarraibide guzti horiek ez dakit zergatik, baina, denak, nigan pegatu dira. Eta gainera hik esaten duan bezala, disfrutatuz, eta bizitzari esker rrrak emanez hau dena garatu dezakedalako ikuspuntu sortzaile batetik.

Baina bestetik, konturatuta nago azken urteotan niri interesatzen zaidan literatura, ez dela euskal literatura. Eta portugesa ikasi dut eta azken aldian Brasilera zabaltzen ari da nire burua eta nire emozioaren parte bat; eta ingelese ikasten dut, eta pelikulak ingelesez ikusten ari naiz, azpitoluekin, orijinalak. Esan nahi dut, **inputaren kantitatea ez ezik kalitatearena ere ikaragarria dela.** Eta orduan, **zergatik egingo dute nire semeek euskaraz dagoen mikrogunetxo hori? Zergatik horren aldeko hautua? Ezinezkoa da?**

Ez, nik uste dut egin dezakegula. Besteak beste, esaten dut ni portugesaren komunitatekoa ere banaizela momentu honetan, eta gaztelarokoa ere bai, eta ingelesekoa ere neurritxo batean, baina badaude diferentziak. **Nik sentitzen dut euskara dela nire ardura-komunitatea, besteak dira nire erabilera-komunitateak, baita nire gozamen-komunitateak, baina euskara sentitzen dut nire ardura-komunitatea.**

Azken harmakadetan eskubide-kultura bat garatu dugu, eskubide-diskurtso bat, eta gure seme-alabak hezi ditugu eskubide-kontzientzia batean eta beste gauza batzuen kontzientzian, baina ez ardura-kontzientzian. Eta uste dut horri buelta ematea kostako zaigula, baina kontua da nik ardura-komunitatean bizi dudala euskara, eta hor egon daitekeela gakoa.

EUSKARA ERABILTZAILA SOILAK

Pablo Suberbiola.- Igor, Jonek aipatzen duen ardura-komunitatea izan daiteke zuk goizean aipatu duzun motxila?

Igor Calzada.- Noski, eta horregatik pozten naiz asko. **Baina onartu behar dugu euskara erabiltzaile soilak ere egongo direla euskal komunitatean;** onartu behar dugu euskal hizkuntza-komunitate honetan, beste soslai horiek ere egongo direla. Horiek identifikatzea oso inportantea

da, eta agian, **autokritika egin beharko genuke, iraganean pentsatu nahi izan dugulako jende guztia arduradun zela, aipatzen duzun ardurakomunitatearen parte, eta ez zuen zertan horrela izan beharrik.**

Josu Amezaga.- Ni ez nator guztiz bat. Ñabardura batzuk sartuko ditut. Nik, jakina, ez dut nahi, eta ezin dut inoren gainean jarri nortasuna, hori argi daukat. **Inori ezin zaio ezarri hizkuntzarekiko, hizkuntza batekiko atxikimendua, eta are gutxiago bere ama hizkuntza ez bada, ez batean baina ezta bestean ere. Baina horrek ez du esan nahi atxikimendu hori landu eta sustatu behar ez dudarik.**

Nik ez dut sinesten hizkuntzen arloko liberalismoan —hiztunek zein hizkuntzatan egin erabakitzen dute—, hau da, hizkuntza batean eta bestean ezagutza ematen zaio eta beraiek erabakitzen dute zein erabili, hori gezurra baita. Zergatik erabakitzen da gazteleraz egitea? zergatik irakurtzen du jendeak buletina gazteleraz? Baditu esplikazio batzuk. Orduan, **nik euskararen egoera ikusita, euskarak beste lurralderik hau baino ez duela jakinda, eta neurtuta euskarak duen masa kritiko txikia, nik argi daukana zera da: edo sustatzen dut nortasuna, sustatzen dut atxikimendua, sustatzen dut ardura, edo gureak egin du!** Nik halaxe ikusten dut.

Orduan, behar bada ondo ezkontzen dira diskurtso biak, ez dakit, baina ez naiz konformatzen esatearekin jendeak aukeratu dezala hizkuntza. Nik saio bat egingo dut, eta indar guztia ipiniko dut jendearen atxikimendu eta nortasun-izaera hori lantzen eta sustatzen. **Behartu? Ez dut nahi, eta ezin dut. Baina bestelako beharrei kontrapisua jarri, bai.** Bestela, beste indar batzuek behartzen dute, ez zuzenean, baina bai indarrez. Indar batzuek bultzatzen dute jendea buletina gazteleraz irakurtzea. Erreza da, kendu gaztelerazko bertsioa eta orduan ez du erdaraz irakurriko.

ZELAN SUSTATZEN DA, NORTASUN-ATXIKIMENDU HORI, ZELAN SUSTATZEN DA INOREN ESKUBIDE PROPIOAK ZAPALDU GABE?

Orduan, **zelan sustatzen da, nortasun-atxikimendu hori, zelan sustatzen da inoren eskubide propioak zapaldu gabe?** Hortxe dago izugarritzko zailtasun eta kontraesana, eta ez da erreza, baina nire ustez eskua sartu beharreko gai bat da.

Pablo Suberbiola.- “Bestela jai dugu” esaten duzunean esan nahi duzu identitate osoa eraikitzekeo gai garela edo ez dagoela ezer? Partziala izango dela baldin badakigu ez duela merezi saiatzeak? Edo onartzen dugu partziala izango dela, eta horri heltzen diogu, ahal den neurrian hobetuz.

Josu Amezaga.- Ahalik eta tresna gehien erabili behar dira. Daukagunarekin egin behar dugu aurrera eta tresna gehiago eskuratzen dugun neu-

rrian, horiek ere erabili beharko dira. Nire iritziz, partzialtasun horretan iritsi gara gaur arte. **Honaino iritsi gara komunitate osoa izan gabe, tresna guztiak eduki gabe. Eta bide luzea egin dugu. Orduan, daukagunarekin saia gaitezen.**

AMAITZEKO

Jon Sarasua.- Diagnostikoaren beharraz azken puntua. Jakinda baldintzak zailak direla ere, uste dut diagnostiko bateratu bat egin behar dela, norberak berea legitimatzeko beharretatik haratago. Hau da, batzuek Espainiako Konstituzioak ezartzen duen desoreka ezin dela ukitu legitimatu behar badute, beste batzuek instituziotan egon direnez, gauza asko lortu direla esatea legitimatu behar badute, beste batzuek instituzioen kontrako diskurtsori eutsi behar badiote zaila izango da diagnostiko hori egitea. Nik uste dut, hortik haratago, XXI. mendean euskaltasuna garatzeko oinarriak zein diren eztabaidatu behar dugula, eta diagnostikoa egin, eta konpartitu.

Zaila daukagu, daukagun historia eta zamagatik. Beste belaunaldiaren gaia planteatzea ez da ardura gugandik kentzeko; denok gara hemen aktibistak eta jarraituko dugu lanean egunerokoan. Baina momentu honetan ideia hori garatzeko minimo batzuetara iristeko arlo batzuetan aukerarik ez dagoela ikusita, uste dut beste belaunaldi bat prestatu behar dugula horretan amesteko. Eta horretan epe luzeko estrategak behar dira. Eta epe luzeko estrategak izatea jendea formatzea da; eta jendeari amesten laguntzea errigore soziolinguistikoa batetik, gure belaunaldiak izan ez duen errigore horrekin, ardura gure gainetik, kendu gabe.

Eta bukatuko nuke bildu gaituen gai honen gaineko aldarri bat eginenez, agian, nahi nuena baino erlatibizatzaileagoa izan naizelako komunikazio eta teknologi berriekiko. Gure komunitatean, adibidez, sortu dugu erakunde bat geure euskal garapen esperientzia munduko beste herriekin konpartitzeko, bereziki Hego Ameriketako herri indigenekin. Eta oso aberatsa da harreman hori. Eta besteengan ikusten ez dena, hain zuzen da **gure herriak izan duen berrikuntza-sena eta desafio berrietan sartzeko grina hori.** Eta uste dut hori estimatu eta aldarrikatzekoa dela. Nolabait Euskal pizkundetik dauden bi aldarte horiek ez? Geure izatearen harrotasuna eta eraikuntza-sena; bi emozionalitate edo gogo-aldarte horiek. Norbaitek Lizardi aipatu zuen egunean: “*baina nik, hizkuntza larrekoa nahi haunat noranahikoa*”. Eta uste dut oraindik ere fluxu hori daukagula gure baitan, **Ez dok hamairuren begiratu Oteiziano hori, guran gure jarraidura hori abangoardian ikustekoa,** eta abangoardia izaeraren aldarrikapen hori, oso urrun dagoena, zoritxarrez, munduko jatorritzko beste herriren gogo-aldarte defentsibo horretatik. Eta zentzu horretan, matriz teknologiko berrietan ere sartu behar dugula uste dut, eta hori estimatzen dut.

Pablo Suberbiola.- Bueno, bukatu dugu. Gure aldetik antolatzaile-taldearen aldetik, alde batetik eskerrak, Soziolinguistika Klusterretik egin dugun gonbitea zuena egin duzuelako. Eskerrak eman nahi dizkizuet ikastaroan parte hartu duzuen ikasle eta hizlariei, bai zuei hiruei eta bai hiru egun hauetan, gurekin izan zaretenoi. Antolatzaileen eta Klusterraren izenean. Baita ere guzti honi markoa jarri dionari ere eskerrak eman nahi dizkiogu, EHUko ikastaroari, antolaketarako emandako erraztasunagatik, bereziki Juanito Etxeberriari, eta zuei. Ondo segi.■